

Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
UNAI BREA

Jata mendia (Bizkaia)

Uribe eskualdeko talaia paregabea

Jata mendia Mungia, Maruri-Jatabe eta Bakio udalerriak elkartzen diren lekuan dago. Garaiegia ez izanagatik, harro altxatzen da Bizkaiko Uribe-Butroe bailararen bihotzean, inguru zabal baten jaun eta jabe. Itsasoa eta larrea, biak uztartzen ditu Jatako tontorrera igota eskaintzen zaigun ikuspegi apartak.

Jata mendiaren gailurra ozta-ozta ailegatzen da 600 metroko garaierara. Hala ere, Bizkaiko begiratokirik onenetakoa da, duen kokapen estrategikoki esker. Muñoz jositako eskualde honetan tontor gutxiak merezi dute “mendi” izena, eta ez dira, inondik inora, Jatarekin lehiatzeko gauza. Egitekotan, Sollube “auzoak” egiten dio itzal, altueraz zein ospez, baina horrek ez dio edertasun apurrik ere kenduko aste honetan egingo dugun ihesaldiari.

Hiru bide desberdin erabili ohi dira Jatare igotzeko. Guk, oraingoan, Mungiako Larrauri auzotik abiatzen dena aukeratu dugu. Horra heltzeko, BI-631 errepidea hartuko dugu Mungiako hirigunean; hau da, Bakio eta Bermeorantz doan errepidea. Hiruzpalau kilometro eta gero, Larrauri agertuko zaigu. Auzoa erraz ezagutzekoa da, errepideko zati zuzen luze-luze batek zeharkatzen du eta.

Laraurira iritsi eta berehala, plazatzoxa ikusiko dugu ezkerretara. Parke txiki bat dago han, umeentzako zabu eta guzti, eta autoa uzteko leku zabala. Hortxe hasiko dugu ibilaldia.

Lehenengo urratsak baserri artean

Behin oinezko bihurtuta, Elexaldera joko dugu. Plazatik bertatik abiatzen da haranzko bidea, eta ondo adierazita dago gainera. Asfaltoa utzi gabe baserri-auzo txiki batetik igaro eta Larrauriko Andra Mari elizara helduko gara minutu gutxian. Haren ondotik bide bi abiatzen dira; Tallu mendirantz (343 m) doana hartuko dugu, pixka bat geroago kanposantu ondotik igaroz.

Oraindik ere baserri artean gaudela, bidea estutuz joango da. Berriz ere Tallura joateko gonbidapena egingo digu errotulu batek, baina oraingo honi ez diogu jaramonik egingo, eta gentozen bideetik jarraituko dugu aurrera. Luze gabe, Jataren tontorra agertuko zaigu begi-bistan, eskumatara.


Baserri baten ondoan amaitzen da asfaltozko bidea, eta haren ordez lur hutsezkoa hasi. Guk, berriz, eskumarantz jo behar dugu, belardian dagoen bidexkatik. GR-280ko marka zuri-gorri

Azkeneko zatia latza da. Dagoeneko zuhaitzik ere ez dago, ez zuten honaino igo nahi beharbada

segituz, ez dago galtzerik. Tarte batez ibili ostean –ordekan beti ere–, hartxintzarrezko bide zabal batera ailegatu gara. Bidegurutzean, GR-280 errotuluak diosku hiru kilometro egin ditugula Larrauritik. Sinetsi egin behar, baina ez du hain luzea ematen.

Kontuak kontu, eskumatara egingo dugu, hartxintzarrezko bideari segika orain. Hemendik aurrera, gorantz joatea egokituko zaigu etengabe, baina bideak ordeka zatiak eskainiko dizkigu tarteka-marteka, hanka nekatuen atsedeen. Aldapa ederrak ere suertatuko dira lantzean behin, baina momentuz laburrak. Latzena iristeke dago oraindik. Gero geroakoak, nolana.

Hartxintzarra desagertu eta lurharrizko bihurtuko da bidea. Igoera osoan ikuspegia galarazi diguten zuhaitzak ere desagertuz joango dira.





Goiko argazkian Jatako tontorrera heltzeko azken aldapa: kilometro eskasean ia 350 metroko desnibela gainditu behar da. Eskuineko erretratuan Zumetxagako hariztia, leku aparta kera egin eta mokadutxoa jateko.

Hala, berriz edukiko dugu Jata ikusteko aukera, eukaliptadi txiki bat zeharkatu eta gero. Oraingoan, baina, askoz hurbilago ikusiko dugu gure ibilaldia- ren helmuga, eta ez lehenago bezala gure eskuma aldean, ezkerrean baizik.

Zortzi mendeko baseliza

Igo eta igo, Zumetxaga izeneko parajera helduko gara azkenik. Hantxe dago San Migel baseliza, XII. mendeko eraikin erromanikoa. Aldamenean,

haritzez jositako zelaitxoan, mahai eta aulkiak daude. Hamaiketarako toki aproposa, zinez. Honaino ekarri gaituen bidearen beste aldean, berriz, baserri bat dago, eta haren hormako iturriak hornituko gaitu urez. Komenigarria izan daiteke, gauden-gaudenean, zerbait edatea, ez orain arte egindako-agatik, ondoren egingo dugun lanagatik baino.

Zumetxaga 258 metroko altueran dago, eta Jataren gailurra 600 metrota-

ra. Desnibela ez da izatez izugarria, baina kilometro bakarreko bidean gainditzen da. Bestela esanda, helmugaraino falta zaigun zatia, hasierako metroak izan ezik, benetan gogorra da. Sasoiko denari, bejondeiola. Besteek pazientziatz ekin.

Iturri ondoan lurrera jausita dagoen errotuluak azken kilometroa iragaritzen digu gailurreraino. GR-123 bidearen zati bat da (Bizkaiko Birarena, alegia), eta ederto adierazita dago. Bidezidor estu batetik ibiltzen hasi eta laster ekingo diogu igotzeari, pinudi bat zeharkatzen dugun bitartean. Lurreko harri eta sustraiek, zein baino zein handiago, eskailerarena egiten dute, mendizaleari zertxobait lagunduz sikiera.

Pinuak bakandu ahala ikuspegiak edertuz doaz. Noizean behin gelditu –birikek eskertuko dute– eta atzera begiratzea aski da horretaz jabetzeko. Hala eginda, Sollube azaltzen da pareparean, bere tontorreko antena-baso eta guzti.

Azkeneko zatia zinez latza da, nekakuta gatozelako akaso. Dagoeneko zuhaitzik ere ez dago, ez zuten honaino igo nahi beharbada. Errotulu bat bada go behintzat, gatozen kontrako norantzan Zumetxagara joaten dela adieraziz. Informazio jakina da hori guretzat, baina ez agian Bakiotik gailurreratu direnentzat. Esan dugu arestian, bada, hiru bide daudela Jataa igotzeko.

Errotulu horretara heldu denak eginda ditu lanak ia. Pixka bat gehiago igo eta ordekatxo batera isuriko ditu pilatutako neke eta izerdiak. Honezkerro beste 300 metro baino ez dira falta

San Migel egunean, Zumetxagan da hitzordua



XII. mendean eraiki zuten Zumetxagako San Migel baseliza

MUNGIAKO UDALEKO ordezkari batek esan digunez, inguruko biztanleek -Larraurikoez eta Bakiokoez batez ere- betidanik eduki dute San Migel egunean Zumetxagara igotzeko ohitura. Orain dela sei edo zazpi urte nolabaiteko ofizialtasuna eman zitzaion usadio horri, eta hala, irailaren 29an,

urterto, meza ematen da baselizan. Txosna eta guzti paratzen du Udaltxeak, Larrauriko zenbait auzokideren laguntzaz, eta mokaduren bat ere egoten da haraino doazenentzat, dendena trikitixa doinuek girotuta. Ezin esan erromeria denik, baina zerbait bada behintzat.



Gailur-gailurrean Espainiako Geografia Institutu Nazionalak jarritako erpin geodesikoa dago.



gailurra zapaltzeko. Harri handiz betetako bidetxotik joan, telebistako erre-pikagailua ezkerretara utzi, eta orduan-txe ikus daiteke aurrenekoz gailurra.

Jataren tontorra Mungia eta Maruri-Jatabe arteko mugan dago. Bakioko lurrak ere honaino ailegatzen direla esan ohi da, baina ez da hala, gutxigatik. Eta behin geografiaz jarduten hasita, aipa dezagun haren zale amorratuentzat gustagarria izan daitekeela akaso, gailur-gailurrean Espainiako Geografia Institutu Nazionalak jarritako erpin geodesikoa. Hantxe bertan adierazita dagoenez, hobe duzu ez hondatzea, legeak zigortu egingo zaitu bestela. Baina ez da zigorretarako unea, sarietarako baizik. Eta sari nagusia begiak betetzen dituzten paisaiak dira, noranahi begiratuta. Mendebaldera batez ere, ez baitago oztoporik. Bizkaiko alde honetan haran orlegiak dira nagusi, milioika urteko erosioak leundu dituen mendixka artean. Ekialdean, berriz, Sollubek estaltzen du

Jateko

Larraurin:

Fonda jatetxea
Bermeo bidea, 40. Tel.94-674 46 41

Bakion:

Itxas-Begi jatetxea.
Goitisolu, 18. Tel. 94 619 43 20

Lo egiteko

Larraurin:

Ibarrondo Etxea, nekazalturismoa.
Txirlone bidea. Tel. 94-615 55 99

Bakion:

Arimune pentsioa
Bentako plazea, 1. Tel. 94-619 40 22

Bisaldea, nekazalturismoa.
Zubiaurrealde, 39A. Tel. 94-619 30 19

atzeko guztia, baina hori ere ez da ikuspegi makala.

Itsasoa ez dago Jatatik urrun, eta haren urdinaz gozatzea ere badago, behe-lainoa ez dagoenean behinik behin. Halaxe gertatu zaio gure kamerari, eta hortaz, Kantauri itsasoaren irudirik ezin hartu. Eguraldi hobez joatea komeni. Ez dugu esango, hala ere, behe-lainoak batere xarmarik ez duenik.

Jaisteko ordua ere iritsiko zaigu noizbait. Igotzeko egindako bidea errepika dezakegu oso-osorik, edo bes-

tela, Bakiora abia gaitzke Zumetxagatik. Lau kilometroko ibilaldia da, hango errotuluak dioenez. Hots, Larraurira itzultzeko adina, gutxi gorabehera. Norberak aukeratu beza. Edozelan, eta badaezpada gogoak Bakiorantz zaramatzaten, ezin aipatzeke utzi hango txakolina, Bizkaia osoan egiten den ospetsuena. Eta hondartza, urte sasoi egokian bainurako leku ezin aproposagoa, hiriko udatiarrek oso ondo dakite-nez. Zalantzarik ez egin, abuztuan askoz jendetsuagoak izaten direla Bakioko kaleak Jatako talaia baino. ■

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin

JUAN ZELAIA

VII. Saiakera saria

antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gai buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

Saria: 9.000 €

Lanak bidaltzeko: Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren industrialdea-Soltxate. G kalea-31013 IRUÑEA.

Irailaren 30a arte.

Tel.: 948 326535 / soltxate@pamiela.org / Arauak: www.pamiela.org

